




Tolosak hartuko du etzi Kirolaren eta Osasunaren Nazioarteko Kongresua

GUNEAK ▶ Kultur Etxean, Leidor aretoan eta Usabalen garatuko dituzte hitzaldiak eta tailerrak

HELBURUA ▶ «Jarduera fisikoa gipuzkoarren bultzatzea» dela azaldu dute antolatzaileek ▶ 3



Prentsaurrekoa, atzo. I. TERRADILLOS



Lau t'erdiko Txapelketatik at geratu da Saralegi Irujoren aurka galduta

AMEZKETA ▶ 22-19ko emaitzarekin amaitu zen partida, atzo, Tolosako Beotibar pilotalekuan. «Partida ona egin dut, pozik nago, baina pena izan da ia irabazirik izanik azkenean galdu izana», azaldu zuen Saralegi amezketarrak amaieran. N. URBIZU ▶ 5

VILLABONA ▶

Urdapilleta etxea utzi behar dutela berretsi diete Onddokoei ▶ 4

SORONEA
denda ekologikoak antolatuta

HITZALDIA

Elikadura, osasuna eta emozioak
Javier Arozena biologoaren eskutik

Tolosako kultur Etxean • Urriaren 18an, 20:00etan
Tel.: 943 01 68 68

KLASE PRAKTIKOAK

Sukaldatu 5 elementuekin
Amaya Ross Iztueta akupuntorearen eskutik

Produktu naturalekin berraurkitu beharra daukagu ez manipulatuekin, Ezaugarri energetikoak ezagutu behar ditugu, norberarenek diren hauek.

Deitu 943 01 68 68 telefono zenbakira

POLITIKA ▶

Datorren urteko aurrekontuen berri eman du PSE-EEK

2007ko helburuez eta orain arte egindako lanaz mintzatu ziren atzo PSE-EEko Oskar Renedo eta Migel Buen



Oskar Renedo eta Migel Buen PSE-EEko ordezkariak, atzo, prentsurrekoan. E. EZEIZA

ESTI EZEIZA

PSE-EEK Tolosaldean eragina izango duten 2007ko Gipuzkoako Aurrekontu Orokorretarako dituen helburuen inguruan hitz egin zuen atzo. Bertan izan

ziren, Migel Buen, Gipuzkoako PSE-EEren idazkari nagusia eta aldi berean, Ahdun Nagusi izateko hautagaia, eta Oskar Renedo, Tolosako Udaletxeko PSE-EEko zinegotzia. Agerraldian, eskualdean

eragina duten bi gairi egin zioten erreferentzia: Gerontologikoaren arazoari eta Voith-Gorostidiko etxebizitzetara. Buenek adierazi zuenez, «ulergaitza da, Tolosaldean, adinekoentzako zentzurik ez egotea». Bestal-

de zentrua istearren arrazoi nagusia kudeaketa bazen, «arazoa konpondu egin behar zela deritzot, eta ez egoitza itxi». Honez gain, Tolosako alkateak erabaki bat hartu beharko lukeela iritzi zuten bi politikariek. Hala, «bere alderdikideak diren Aldundikoei aurre egin beharko lieke Bildarratzek eta eskualdearentzat onena dena egin».

Bestetik, Bildarratzek aurrea eramandako hainbat proiektu goraiatu zituzten sozialistek, eta hauen aurrean beraien emandako laguntza azpimarratu zuten. Horren adibide da Voith-Gorostidiko etxebizitzetara proiektua. Bestetik, Buen hautagaia gaineratu zuen, 2007an Ahdun Nagusi izendatzen badute, «gazteentzako etxebizitza duinak eta eskurgarriak egingo dituztela».

Garraio publikoari buruz ere luze mintzatu ziren atzokoan, hau bultzatzeko egitasmoa azalduz. Honen harira, Renferen tren zerbitzua hobetu eta gehitzeko asmoa adierazi zuten. Izan ere, «Gasteiz Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburua da, eta hona joateko komunikazio bideak nahiko urriak dira», adierazi zuen Buenek. Honez gain, tren estazio zaharra eraberritzeko asmoa ere agertu zuten. Garraioari dago-kionez, Gipuzkoako mota guztietako ibilgailuentzako txartel bateratu bat sortu behar litzatekeela uste dute. Gainera, zenbait herritarrentzako beherapenak izango litzatekete hauek.

KIROLA ▶

Loiti mendatera irteera egingo dute igandean

Alpino Uzturre elkarteak Nafarroako Loiti mendatera irteera antolatu du datorren igandearako, hilak 22. Oraingoan, Itzaga, 1.361 metroko altuerako mendia igoko dute. Joan nahi duenak, elkarteak Gudari 5ean duen egoitzan eman ahal izango du izena, 20:00etatik 21:00etara. Hala, bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainontzekoek, 12. Informazio gehiagorako 943 65 27 89 zenbakira dei dezake.

POLITIKA ▶

Presoen familientzako diru-laguntzak

Gipuzkoatik kanpoko kartzelatan dauden presoen familiek, gastuei aurre egiteko, Tolosako Udalari diru-laguntzak eskatu ahal izango dizkiete, azaroaren 10era arte.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebexa: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitza: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

GIZARTEA ▶

Gerontologiko zaharra berriro martxan jartzea eskatzen du plataformak

Konponketa batzuk behar baditu ere, oraindik egoera onean dagoela deritzote

E. EZEIZA

Pasa den irailaren 28an, Gerontologikoaren aldeko plataformako kideek, Tolosako Udaletxeko Gizarte zerbitzuetako komisioko lehendakariak lagunduta, eta eskuetan kamara bat hartuta, Euskal Herri plazako Gerontologiko zaharra bisitatu zuten. Hau eta gero, plataformakoek adierazi zutenenez «itxi zuten egunean zegoen egoeratik, alde handirik ez zegoela ikusi genuen». Hala, plataformakoek ustetan, «kustakoak Gerontologikoaren berre-

rabilpenaren ideia indartu du». Egoitza berria errealitate bihurtzen ez den bitartean, konponbide zuzen, aukerako eta bideragarria izan litekeela uste dute, betiere, alderdi politikoek laguntzen badute.

Gerontologiko zaharra itxi eta gero, honen aldeko plataformak emandako datuen arabera, «itxaron zerrendetan dauden eta dagoeneko beste eskualdeetako erresidentzetara bidali dituzten pertsonen kopurua 60 baino gehiagokoa da». Eta aldi berean, egoitza zaharrak, 60 pertso-



Eta orain zer? Gerontologikoaren itxieraren aurkako plataformak. N.L.

nentzako lekua du. Horregatik, nahiz eta denboraldi honetan ez erabili, eta konponketa batzuen beharra izan, plataformakoek uste dute, «zentroa harrerara egokia emateko moduan» dagoela.

Bestetik, alderdi politikoez osatutako lan taldearekin egindako bileretan, proposamen

hau gehiago zehaztu dute. Egitasmo honen arabera, kudeaketa, Iurreamendi fundazioa arduratuko litzateke, «honek eskarmentu handia baitu alor horretan». Hala, ordezkari politikoek beraien tekniko eta alderdikideekin proposamenaren bideragarritasuna aztertuko zutelako agindu zuten.

KIROLAK ▶

Jarduera Fisikoa, Kirola eta Osasunaren Nazioarteko Kongresua etzitik larunbatera

Leidor aretoan, Kultur Etxean eta Usabal kiroldegian banatuta, kirolaren eta osasunaren erlazioaz hitzaldiak eta tailerrak eskainiko dituzte hainbat adituk

IÑIGO TERRADILLOS

Tolosak hartuko du etzi hasi eta larunbata bitarte Jarduera Fisikoa, Kirola eta Osasunari buruzko Nazioarteko Kongresua. Hitzaldi eta tailer desberdinez osatuko den kongresu honetan, jarduera fisikoak eta kirolak osasunarekin duten erlazioaz, haur obesitatearen prebentzioaz, pertsona ezinduen gizarteratzeaz jarduera fisikoaren eta kirolaren bidez eta herritarren ohiturak aldatzeko moduez hitz egingo dute, besteak beste, kirolan eta medikuntzan aditu direnek.

Atzo, eginiko aurkezpenean, Andoni Imazek jardunaldi hauek Tolosan egitearen garrantzia azpimarratu, eta bertan izango den jendea nabarmendu zuen, «ez baita erraza maila horretako adituak bilitzea». Bestalde, Fernando Tapia, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte eta Erakunde harremanetarako foru diputatuak «Tolosaren 750. urteurrena izaki eta Usabal kiroldegia bere irekieratik izandako arrakasta dela eta, Tolosa lekurik egokiena» dela kongresua egiteko esan zuen; «gero eta ohitura txarragoak hartzen goaz eta honek osasunarekin zerikusi zuzena du», gehitu zuen, jarduera fisikoak gipuzkoarren gantzatzatza dutela helburu azalduz.

**ETZI
LEIDOR ARETOA**

10:15-11:00. Inaugurazio hitzaldia: *Estrategia globala nutrizioan, jarduera fisikoan eta*



Ezker-eskuin: Enrike Erentxun (*El Diario Vasco*), Jose Manue Franco (Policlinica Gipuzkoa), Fernando Tapia Foru Aldundiko Gizarte eta Erakunde harremanak, Andoni Imaz Tolosako Udaleko kirol zinegotzia, Iñaki Ugarteburu Foru Aldundiko kirol zuzendaria, Telmo Labayen (Pfizer) eta Jose Antonio Agirre (Kutxa). i. t.

osasunean. Txostengilea: Ursula Truebwasser, Osasunera-ko Mundu Erakundea (OME).

11:30-12:15. Lehenengo hitzaldia: *Jarduera fisikoak eta kirolak osasunarekin duten loturaren oinarri zientifikoak.* Txostengilea: Javier Jimenez Madrilgo INEFeko irakaslea.

12:15-13:00. Bigarren hitzaldia: *Osasun arloko langileen zeregina jarduera fisikoaren sustapenean.* Txostengilea: Gonzalo Grandes doktorea, Bizkaiko Lehen Mailako Antzizioaren Ikerkuntza Unitatea.

13:00-13:45. Hirugarren hitzaldia: *Sindrome metabolikoa: egungo bizimoduaren ondorioa.* Txostengileak: Sara Maldonado eta Sabino Padilla, EHUko irakasleak.

16:00-17:30. Lehenengo tailerra: *Haur obesitatearen prebentzioa, eta jarduera fisikoarekin eta kirolarekin duen lotura.* Dinamizatzailea: Enrique Perez de Ayala doktorea, kirol medikuntzan aditua.

17:30-19:00. Laugarren taile-

rra: Herritarren ohiturak aldatzeko moduak: herritar eta erkidego aktiboagoak nola sortu. Dinamizatzailea: Pedro Iturrioz Rosell, Gipuzkoako Familia eta Komunitate Medikuntzako Irakaskuntza Unitatea.

KULTUR ETXEA

16:00-17:30. Bigarren tailerra: *Pertsona ezinduek gizarteratzea jarduera fisikoaren eta kirolaren bidez.* Dinamizatzailea: Alicia Figueroa, Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioko zuzendari teknika.

17:30-19:00. Hirugarren tailerra: *Jarduera fisikoak pertsona zaharren bizi-kalitatea ontzeko bide.* Dinamizatzailea: Montse Otero EHUko irakaslea.

**OSTIRALA, HILAK 20
LEIDOR ARETOA**

09:30-10:15. Laugarren hitzaldia: *Jarduera fisikoaren bidez osasuna sustatzeko aukerak eta erronkak: Kanadako esperientziaren gainera gogoretak.* Txostengilea: Enrique

Garcia Bengoetxea, Montrealgo McGill Unibertsitateko irakaslea (Kanada).

10:15-11:00. Bosgarren hitzaldia: *Kirola egiteak osasun gaituetan duen eragina.* Txostengileak: Mario Lloret Riera, Kataluniako Kirol Idazkaritza Nagusiko Kirol eta Osasun Unitateko arduraduna, Josep Maria Pons, Kataluniako Generalitateko Osasun Publikoko Zuzendaritza, Oscar Garcia Figueras eta Mikael De Rhan, Atlas Sport Consulting-etik.

11:30-12:15. Seigarren hitzaldia: *Admistrazioaren eskuhartzeak: Oinez Bizi.* Hizlaria: Maria Luisa Gutierrez, Eusko Jaurilaritzako Osasun Sailaren Osasun Plangintzarako zuzendariordea.

12:15-13:00. Zazpigarren hitzaldia: *Osasun eta Kontsumo Ministerioaren NAOS estrategiaren helburuak, nutrizio gidak eta jarduera fisikorako gidak.* Juan Manuel Ballesteros, Elikadura Segurtasunera-ko Espainiako Agentzia.

USABAL KIROLDEGIA

15:00-17:30. Tailer praktikotak. (Usabal Kirolgunerako autobusak Leidorretik aterako dira 14:45ean. Itzulera, 17:30ean).

Lehenengo tailerra: Jarduera fisikoak nola aholkatu. Dinamizatzailea: Iñaki Iturrioz Rosell, Irungo Udalaren Kirol Patronatuko kirol teknikaria.

Bigarren tailerra: Teoriatik praktikara: jarduera fisiko egokituak. Dinamizatzailea: Alicia Figueroa, Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioko zuzendari teknika.

Hirugarren tailerra: Teoriatik praktikara: jarduera fisiko egokituak ur ingurunean. Dinamizatzailea: Javier Aymerich, EHUko irakaslea eta ezinduentzako igeriketan aditua.

Laugarren tailerra: Zaharrentzako parkeak: praktikak berariaz prestatutako instalazio batean. Dinamizatzailea: Bilboko MAS Commerce enpresa.

18:00-20:00. Bisita gidatua.

20:30: Afari ofiziala Tolosan.

LARUNBATA, HILAK 21
LEIDOR ARETOA

09:30-10:30. Tailer teorikoan ondorioen aurkezpena.

10:30-11:15. Zortzigarren hitzaldia: *Jarduera fisikoak egiteak egoera fisikoan duen eragina: 65 urtetik gorako pertsonen egindako azterketaren emaitzak.* Hizlariak: Montse Otero, EHUko irakaslea eta Jose Francisco Aramendi medikua.

11:45-12:30. Bederatzigarren hitzaldia: *Ariketa fisikoak eta kirolak emakumearengan duen garrantzia.* Hizlaria: Diana Hauseheer medikua.

12:30-13:15. Hamargarren hitzaldia: *Jarduera fisikoak eta dotzapeko substantzien erabilera: elkarrengandik urruntzen den bikotea.* Iñaki Arratibel doktorea, kirol medikuntzan aditua.

13:15-14:00. Amaierako ekitaldia. Hitzaldia: *Ariketa fisikoak egitea osasungarria al da?* Jose Maria Odriozola, Espainiako Atletismo Federazioko lehendakaria eta Biokimika katedraduna Madrilgo Unibertsitate Publikoan.

iragarki laburrak ▶

San Franzisko etorb. 47- beheko
TOLOSA
 Tel.: 943 65 50 37
 Faxa: 943 65 09 44
 e-maila: enria@inmoenria.com
 www.inmoenria.com

Amezketak. Eraikuntza nahiko berriko etxebizitza, logela, sukaldea, egongela eta komunarekin. Ilogailua eta berokuntzarekin. **150.250 euro.**
Anoeta. 3 logela, sukaldea, egongela eta gainugela. Dena kanpoaldera. Bizitzen jartzeko.
Ibarra. San Inazio. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Bizitzera sartzeko moduan. Berokuntzarekin.
Irura. Etxezarreta, 3 logela eta 2

bainugela. Dena kanpoaldera.
Garajea aukeran.
Leaburu bidean. 600 m2ko pabiloia alokairuan, bi solairuetan banatua, 2.500 m2ko zelaiarekin.
Berrobi. Estilo rustikoan (aldizkarietan bezala!). 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.
Amezketak, Berastegi, Gabiria, Hernialde, Ibarra. Hainbat etxe bifamiliar, adosatu eta eraikitzeko partela.
Ibarra. Julian Gayarre. 2 logela,

sukaldea, sala eta bainugela. Berokuntzarekin. Ezin hobeto. **239.805 euro.**
Tolosa. Eraikuntza berriko hainbat etxebizitza. 2, 3 eta 4 logela aukeran. Garajeekin.
Tolosa. Beotibar. 36 m2. Altua, 150.000 euro.
Tolosa. Alde Zaharra, 2 logela, sukaldea, egongela, eta bainugela. Hainbat berrikuntza. **168.285 euro.**
Tolosa. Berazubi. Berritzeko aukera anitzak. Ilogailu proiektua onartuta.

Tolosa. Siervas de Jesus. 3 logela, sukaldea, egongela, eta 2 bainugela.
Tolosa. Zumalakarregi. 92m2. 3 logela, 2 bainugela. Guztiz berritua. Estreinatzeko. Garajearekin.
Tolosa. La Estrella. Oso egoera onean. Ilogailu eta garajearekin.
Tolosa. Isaac Lopez Mendizabal, 4 logela. Ilogailua. Garajea. Egoera ona.
Villabona. Kale Berria. Eraikuntza berria. Pisu altua. 100 m2. Garaje ibxia.
Legorreta. Trastelekuak salmentan. Bizikleta edo motorarentzat egokia.

VILLABONA ▶ KIROLAG

Behar-Zana ez da izango
Endika Abrileko finalean

Uztaritzeko eta Donibane Lohitzuneko taldeak ariko dira txapelaren bila igandean

I. GARCIA

Villabonako Behar-Zanako errebotetako finalaurrekoa galdu zuen herenegun Donibane Lohitzuneko Luzeaz Gazte taldearen aurka. 13-3 izan zen emaitza eta Behar-Zanako Igor Alejo errebotelariaren ustez gehiago egitea bazuten: «4-2 izan ginen markagailuan, gero 6-3 eta hortik aurrera partida bukatu zen. Hasieran estutzen hasi ginen, baina beraiek gehiago jokatu zuten eta finalaurrea eraman zuten. Guk ez genuen gure maila eman».

Luzeaz Gazte egungo Frantziako txapelduna da eta, beraz, erreboteko talderik onenetakoa da. Behar-Zanakoek

ez zuten baliatu Villabonako jokatzea beste emaitza bat lortzeko. «Villabonako plaza motzagoa da Iparraldekoekin alderatuz. Guretzako abantaila da eta onentsuekin lehiatzeko aukera dugu. Baina horretarako gure maila onena eman behar dugu», azaldu zuen Alejo.

Donibanekoek finalean Uztaritzeko Kapito Harri izango dute aurrean. Azken hauek Hazparneko Noizbait taldeari 13-12 irabazi zioten beste finalaurrean. Horrela, igandeko partida, 11:00etan, Errebotetako Egunean jokatu ahal izan ez zen norgehiagoka izango da, hau da, Frantziako Txapelketako garailearen eta txapeldunordearen artekoa.

IRURA ▶ KULTURA

Eriz magoaren ikuskizuna
haurren gozamenarako

Erredakzioa ▶ Eriz magoak ikuskizuna eskaini zuen berriki Irurako Ikastolan, Galtzaundi Euskara Taldeak eta Irurako Udalak antolatuta. Antolatzaileek azaldu dutenez, «ikuskizuna haurren gustukoa izan zen eta barre egiteko uneak izan zituen ordubetarak. Harriduraz gain jokoez gozatu ahal izan zuten ikuskizunera joandako gaztetxoek». GALTZAUNDI

VILLABONA ▶ GIZARTEA

Urdapilleta etxea utzi
behar dutela berretsi
diete Onddokoei

Herenegun bukatzen zitzaien epea eraikina hustutzeko, baina Gazte Asanbladakoek ez dituzte beraien gauzak atera



Onddo Gazte Asanbladako zenbait kide, atzo goizean, Urdapilleta etxearen aurrean. MADDI SOROA

IMANOL GARCIA

Onddo Gazte Asanbladako herenegun amaitzen zitzaien epea Urdapilleta etxea utzi eta bertan dauzkaten materialak bertatik eramateko. Atzo goizean Villabonako Udaleko udaltzain bat eta Urdapilleta etxea haurtzaindegi bezala moldatzeko proiektua egin duten bi arkitektoak izan ziren Onddoko zenbait kideekin hizketan, oraindik ez zutela Gaztetxea hustu eta. Udalak Urdapilleta etxea hustu behar dutela azaldu zien, egokitze obrak hasi behar direlako. Gazte Asanbladakoek azken egunetan esan dutena berretsi zieten, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI azaldu diotenez: «Udalak ez du alternatibarik eman eta gu kaleari gelditzen gara».

Onddokoei denbora gehiago eskatu dute Gaztetxea hustu eta uzteko. Hala, gaur gaueko hamabiak arte izango dute horretarako epea. Bihar goizean Urdapilleta etxea egokitu behar duen enpresa bere lanekin hasiko da. Bere aldetik, Onddokoei asanblada burutzeko asmoa zuten atzo arratsaldean, baina egunkari honen edizioa ixterako ez da jakin ahal izan bertan hartutako erabakirik.

Bakartxo Tejeria Villabonako alkateak HITZARI azaldu dienez, «orain dela hilabete bazekiten hustu behar zutela, abisua pasa baikeenien. Sacemen

leku bat utzi diegu bere gauzakan uzteko». Irtenbide bat bilatzeko hainbat bilera egin dituztela dio Tejeriak: «Astero ere bildu izan gara Gazte Asanbladakoekin. Urdapilleta etxean haurtzaindegi egiteko egitasmoa aspaldikoa da eta aurten onartu dugu proiektua».

Alkateak azaldu duenez, «lau alternatiba eskaini dizkiegu eta beraiek ez dituzte onartu. Egundak haurtzaindegi dagoen etxea izatea proposatzen dute, baina hori ez dago gure esku, Foru Aldundiaren erakina baita». Eraikin horren inguruan Foru Aldundian egindako gestioak aipatu ditu: «Onddokoei batera izan gara Foru Aldundian eta idatzi bat eman genien Udalari uzteko eraikina eta gero gazteen erabilpeneko bideratzeko. Udalak ez du proiekturik leku horretarako, baina ez dago gure esku. Foru Aldundiak erantzun zuzenez, beraien beharrikusi eta gaia aztertu behar dute, baina ez dute berehala erantzunik emango».

Udalak proposatutako lau alternatibak ere aipatu ditu Tejeriak: «Adunarako bidean dagoen zentrala utziko genielan esan genien, baina urruti zegoela esan zuten». Beste aukera Burdinezko Zubiaren ondoan «eraikin bat egiteko proposamena egin genien, baina hori ere herriatik urruti zegoela esan zuten». Otsabiko San Jose

Aroztegiko lokala «erosteko prest geundela ere azaldu genien, baina horri ere ezezkoa eman zieten». Beste aukera «Salvadora enpresa zen lurzoruan aurkitutako ur depositua izan zen, baina hori ere ez dute onartu». «Herrian ez daukagu beste aukerarik», zehaztu du alkateak.

Udalak proposatutako aukeren inguruan, Gazte Asanbladakoek «Gaztetxea herriatik urrutiratu eta alboratzeko asmoz» eginda daudela azaltzen dute. «Gazteok gara ezer gabe gelditzen garenak. Ezezkoak ez dira kapritxo emandakoak». Horrez gain, Onddokoei ez dute ikusten «zerbait eraiki behar denik eta hainbeste dirurik gastatu behar denik». Beste aukera bat «haurtzaindegi berria Urdapilleta etxearen aurrean eraikitzea edo etxea bera partekatzea da. Gaztetxe zaharrean ere elkarrean ondoan geunden eta elkarbitzita onuragarria izan zen».

Irtenbidea orain dela bi urte egon behar zela adierazi dute Onddokoei: «Etxebizitzak egiteko Gaztetxe zaharretik aterazi gintuztenean ez zuten irtenbiderik eman eta horregatik okupatu genuen Urdapilleta etxea». Egungo haurtzaindegi dagoen etxea Foru Aldundikoa dela eta «eskuak garbitzen ari dira, horren aitzakipean isildu nahi gaituzte».

**LIBURUDENDA
PAPERDENDA**
M AIMUR

Prensa-Liburuak
Faxa-Fotokopiak

Zerbitzu berria: Mota guztietako dokumentuen artisau enkuadernaketa

Tel./Faxa: 948 51 01 46 • Elbarren, 17 • LEITZA

AMEZKETA ▶ PILOTA

Saralegik ezin izan du Irujoren aurka

Bere biziko partida egin bazuen ere, Lau t'erdiko Txapelketan ez du segiko

NEREA URBIZU

Atzokoan Tolosako Beotibar pilotalekuan Ekaitz Saralegi amezketarrak Irujo «handiaren» aurrean galdu egin zuen: «Irujoren aurka jokatzeari handia da, eta azkenean berea izan da garaipena; pena ematen dit garaipena nirea izan zitekeelako». 22-19 izan zen Lau t'erdiko Txapelketako atzoko partidako emaitza.

Partida irabazten hasi zen Saralegi, baina Juan Martinez de Irujok 5 tantoko aldea ateraz zion amezketarrak 3 zituenean. 10. tantoa egin zuen azkenik Saralegik, aldi berean pilotari nafarrari aurrea ateraz, 10-9, hain zuzen.

Amezketarrak, ikusleen artean faboritoa zelarik, 19 tanto egitea lortu zuen, Martinez de Irujoren jokoa dominatuz. Irujo urduri ikusi ahal izan zuten pilotazaleek: momentu batean oihiak eta haserreak agerian utzi zituen eta horren ondorioz epaile batek atentzioa deitu egin zion. Nafarraren urduritasunak zentzuzkoak izan zitezkeen, izan ere, 19-13 galtzen zihuan. Orduantxe Irujo aldegeletara joan zen bere botileroarekin. Minutu batzuen ostean atera eta indarberriturik bezala 9 tanto egin zituen jarraian, pilotari handi baten jokoa agerian utziz.

Saralegik esan zuenez «ez dut urduri nengoelako galdu, lasai nengoen, baina 19-13 nihoala ikusita, baliteke pentsatzea partidua bideratuta eta ia irabazita nuela eta orduan bai urduri jarri naizela». Gakoa, bere esanetan «19-13an izan da, gantxo bat kanpora bota dut eta txapa beheara jo du, zorte txarra izan da. Gero sakea berak hartu du eta orduan aldatu da jokoa». Irujoren 13. tantotik aurrera, eskualdeko pilotariaren arabera «Irujok nik baino hobeto jokatu du, baina ordua arte nire ustez partidua on egin dut, ondo aritu naiz».

Amezketarrak sufrituarazi egin zion Irujori: bere onetik atera zuen urrundu egiten zela ikusita. Saralegik ahazten zaila izango den partida egin zuen,

EKAITZ SARALEGI PILOTARIA

«Partidu ona egin dut; pozik nago, baina pena izan da partidua ia irabazirik izanik azkenean galdu izana»

maila ona erakutsiz eta armailetan zeudenak gozatu araziz. Irujo ordea, ez zen bigarren zatian gubxiago izan eta bere maisutasuna ere erakutsi zuen, Saralegik ahal zuen guztia eginda ere, ezin izan zen lehenengo tantoetan bezala gailendu.

«Nik jendeak pilotan ondo ibili naizela ikustea nahi nuen; honaino etorri eta partida on bat ikus zezatela, eta uste dut lortu dudala. Gustua ematen du astelehen batean horrenbeste jende frontoian ikustea eta jarri duten giroa izatea», zioen bukaeran jokalaririk.

Partidaren aurretik

Juan Martinez de Irujo pilotari nafarrak azken momentura arte ez zekien jokatzetik izango ote zuen, San Mateo torneoan egindako lesioarengatik, baina azkenean amezketarraren aurka lehiatu zen.

Lehen aldiz jokatu zuen atzo Saralegik gaur egungo pilotaririk handienarekin, eta Saralegik esan zuen bezala «aukera gutxi izango ditut bere aurka jokatzeko, eta hau gogoratzea izango da». Amezketarraren arabera «Irujo ez zirudien lesioa zuenik; indartsu ikusi dut». Orain Saralegik nahi duena «jendeak Irujorekin goza dezala» da.

Ekaitz Saralegik zioenez «ondo eta lasai samar egin zuen lo azkeneko gauean», baina «ondoren» etorriko ziren «urdiritasunak eta tripako kilimak, Beotibarren sartuta». Berak aurretik bazekien jarraitzaileak izango zituela, Amezketatik joandakoak gehienbat. «Hori esaten zidaten, han izango zirela iskanbila egiten eta hala izan da». Hurrengo partiduan Berasaluze IX.aren aurka arituko da nafarra.



Ekaitz Saralegik partida bikaina eskaini zuen, askotan Juan Martinez de Irujo estutuz. N. URBIZU

(KUTXA BIZITZA-ASEGURUA)

ZU BIZI ONDOREN ERE BIZIA DAGOELAKO.

Gure laguntza osoa duzu
maiteen dituzunak
babesteko.

Zuretzat eta zure familiarentzat etxe baten jabe izatea, horra ahalegin handiz bete duzun ametsa. Zure familiak etxe horretaz gozatzeko eskubidea du noski, eta ezerk ez luke eragotzi behar hori. Izan ere, **Kutxa Bizitza-Asegurua** duzu hori bermatzeko modurik errazena.

Guretzat ere zure familia baita garrantzitsua.



"Biharko Vida y Pensiones, S.A."-rekin kontratatutako Kutxa Bizitza-Asegurua. **Kutxa** da bere erregistroan 02 zk.az ageri den aseguru agentziaren sozietatea.

kutxa

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

BERASTEGI ▶

Digestioen inguruko hitzaldia bihar Gaztainondon

ERREDAKZIOA

Bihar, *Digestio zoriotsuak edo digestio astunak* izeneko hitzaldia izango da doan Gaztainondo Jubilatuko elkartean, 18:00etatik aurrera. Izaskun Arrillaga izango da hizlaria eta janariak digeritzeko prozesuan parte hartzen duten egituren inguruan jardungo du. Era berean, elikagaiak ondo aprobetxatzeko jarraitbideak zein diren azalduko du.

GIZARTEA ▶



Ohiturari eutsiz Orexan eta Gaztelun

Erredakzioa ▶ Orexako eta Gazteluko herritarrek bazkaltzeko bildu ziren urriaren 12an. Ohiturak agintzen du Uliko aterpeak izan behar duela bilgune, baina eguraldi arazoengatik Gaztelun bazkaldu zuten giro gozo eta atseginean. Bertan bilduriko 40 lagunek egungo prozesuari modu xumean bultzadaxoa eman nahirik, *Euskal Herria Autodeterminazioa* lelopean kontzentrazioa egin zuten Gazteluko plazan. Bazkaldoan diru bilketa egin zuten 18/98 epaiketaren gastuei aurre egiteko. HITZA

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

«Estutasunezko partidari» Ibarra garaile UPVren aurka

2-1eko emaitzarekin denboraldiko laugarren garaipena erdietsi zuen Ibarra areto futbol taldeak, Labakak eta Pradosek lortutako golei esker

ERREDAKZIOA

Irabazi bai, baina larri ibilitako partidaren ondorioa izan zen pasa den ostegunean Ibarra Gipuzkoako UPV taldearen aurka jokaturiko partida.

Igor Zabalok, Victor Silvak, Unai Labacak, David Pradosek eta Ion Ander Karrerak ekin zieten partidari lehen minutuan. Ondoren, ordea, Sinoe Sanz, Lander Camio, Xabier Blanch eta Ustariz Errondosoro ere aritu ziren jokoan.

Benetan «partida ikusgarria» izan zen, Jose Manuel Tobias prentsa arduradunaren esanetan, baita oso jendetsua ere; 300 lagun izan ziren Belabietan partida ikusten eta ikusmin handia sortu zuen.

Bi taldeek ere norgehiagoka itzela erakutsi zuten larunbate-



Osteguneko partidako une bat, David Prados atera erdiratzeko zorian. MADDI SOROA

Gol honen eraginez etxeko taldea asentatu egin zen eta markagailua igotzeari ekin zion; atsedendia iristerako, ordea, berdin jarraitzen zuen markagailuak, 1-0 etxekoan alde.

Partidaren bigarren zatia guztiz bestelakoa izan zen. Batetik, Unai Labacak min hartu zuelako eta bestetik UPV askoz ere gehiago presionatzen hasi zela.

Jokoan nor baino nor aritu ziren bi taldeak etengabe golaren bila. 29. minutua iristean Ibarra defentsako akats bat aprobetxatu, berdinketa lortu zuen UPVk.

Sekulako emozioa piztu zen orduan; hala, bi taldeak garaienaren bila abiatu zirelarik. Bi taldeek sortu zituzten gol aukerak, baina etxeko nahiz aurkariaren atezainak fin ibili ziren eta markagailuak 1-1ko berdinketarekin jarraitzen zuten.

Banako berdinketak bere horretan jarraituko zuela zirudienean, ordea, norgehiagokako jokaldirik onena burutu zuen David Pradosek. Baloia-ekin area ertzearaino iritsi eta denek jaurtiketa burutuko zuela uste zuenengan, Ustaritz pasa zion. Honek, angulo gutxi zuela eta, berritoe Pradosi pasa zion eta honek sekulako gola sartu zuen, partida amaitzeko hiru minutu falta zirenean.

Porrotik ez

Liga hasi zenetik, Ibarra ez du porrotik ezagutu. Gogoratu, bost partida jokatu dituela orain arte, horietatik, lau garaipen eta berdinketa bat lortu dituelarik. Bikain hasi dute beraz denboraldi berria.

iragarki laburrak ▶

LANA

Tabernaria. Neska auskalduna behar da 4 orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentatua. Interesatuak deitu 635 74 52 91 telefono zenbakira.

SALGAI

Pago egurra. Sutarako pago egur

lehorra salgai. Etxera entregatzen da. Interesatuak deitu 615 75 57 62 telefono zenbakira.

Autoa. Bmw M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995 urtekoa. 153.000 kilometro, liburuarekin. 18ko llantak eta tetxua. Oso egoera onean. 14.000 euro. Interesatuak deitu 943 65 41 43 telefono zenbakira.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Jakin berri den datu batzuen arabera, reality show deituriko telebista saioak ikusten dituzte euskaldunen gehiengoak. Zer ikusten dugu euskaldunok? Sartu gure webgunean eta eman iritzia.

na zalantzazko markagailuak uneoroko emozioa jarri zuen harmailetan.

Partida hasieran, UPV kantxara ohitzen ari zela eta, etxekoak izan ziren baloien jabe. Nahiz eta pare bat gol aukera izan, Ibarra ez zuen jakin joko garatzen.

11. minutuan, ordea, Sinoe baloia lapurtu, Landerri pasatu, eta honen erdiraketa bati esker, Labakak gola egin zuen.

LEITZA ▶ FUTBOLA

Iñaki Antolinen golari esker Aurrera irabazle, Iruñean

Hagitz gol polita sartu zuen bigarren zatian: kanpo erditik abiatu eta defentsak saihestuz gola sartzea lortu zuen



Aurrera Taldea denboraldiko lehenengo partidari. J. ASTIBIA

NAIARA GARZIA

Ostegunean Iruñean Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aurka jokatutako partidari 1-0 irabazi zuten leitzarrek. Lehenengo atsedena husna iritsi baziren ere, bigarren zatian Iñaki Antolinek gol polita sartu zuen.

Iruindarrak indartsu hasi eta leitzarrek nahiko lokartuta atera baziren ere, aurkariek sortutako aukerei buelta eman eta defentsa lana nahiko ona egin zuten leitzarrek. Pixkanaka nagusitzen hasi ziren horrela, eta partida bikaina izan ez bazen ere, zenbait aukera sortu zituzten. Iñaki Antolinek sartutako gola oso polita izan zen, eta bertara hurbildu zirenak

kanpo erditik hasitako jokaldi paregabea ikusteko aukera izan zuten. «Abiadura handiz abiatu zen, defentsak atzetik jarraika zituen baina ez zuten harrapatu eta atezainaren aurrean oso ongi amaitu zuen jalkaldia» dio Jon Arangoa jokalaririk. Hauxe izan zen Aurrerari denboraldi honetako bosgarren garaipena eman zion gola.

Honela, jokatutako 6 partidetatik 5 irabazi dituzte, azken honekin 15 puntu eskuratu. Asteburuan leitzarrei atsedena hartzea tokatzen zitzaenez, ez zuten partidarik jokatuko, eta horregatik, osteguneko irabazi arren, 3 puntutako distantzia daukate lehenengoekin, Berriozarko San Cristobalekin,

Hurrengo partidari igandean, hilak 22, jokatuko da Leitza, eta futbol gustuko duenentzat herri derbia ikusteko aukera polita izan da, Lekunberriko Beti-Kozkor taldearen aurka ariko baitira.

Aurtengo emaitzekin oso gustura daude Aurrera Kirol taldekoak. Orain haien lehenetasuna aurreko hiru faseetan sartzea da. Hiru talde dira eta talde bakoitzeko aurreko hiruren artean, hau da, osotara 9 horien artean liga bat jokatuko da Lehenetasuneko Mailara igotzeko. «Orain helburua aurreko hiru urteetan sartzea da, bigarren liga horretara pasa eta ahal den hobekien jokatzea», dio Josu Zestau Aurrera KE-ko zuzendariak.

TOLOSA ▶ FUTBOLA



Daniel Garcia Hoberenako entrenatzailea. E. EZEIZA

Hegoaldeko Villalbaren aurka galdu du Madril

Aurtengo denboraldiaren martxarekin jarraituz, joko motela izan zuten tolosarrek

N. GARZIA

Joan den igandean Enrique Blas Echevarria pabiloiean (Madril) jokatuko zuten ligako txapelketako laugarren jardunaldia garrantzitsua izan zuten bai tolosarrentzat, bai madrildarrentzat ere. Izan ere igandera arte ez Hegoaldeko Collado Villalba ez baitzuten punturik irabazi.

Collado Villalba eta Hegoalderen arteko partidari oso berdindu egin zuten, eta nabarmena zen laugarren jardunaldia eta gero bi taldeek puntuak lortzeko zuten beharra. Partidari ez zen oso ikusgarria izan, eta joku geldoa izan zen nagusi, haien liga hasiera txarraren zergatia agerian utziz. Hanka-sartze tekniko asko egin zituzten tolosarrek, eta orokorrean akatsak aunitzak izan arren, lehenengo minutuan Collado Villalbako Sila jokalaririk sartu zuen lehenengo gola. Berdinketa 13 minutuan iritsi zen, Maiderreri golarekin. Lehenengo zatian Hegoaldeko aukera garbiak

galdu zituen, Aneren eskutik (4. minutuan), eta baita Maiderreri eskutik ere.

Atsedena eta gero, bigarren zatiko 29. minutuan talde madrildarrek bigarren gola sartu zuen, Marianela jokalaririk argentinarraren eskutik. Markagailuak beste behin gora egin zuten Tacik hirugarren gola sartu zuenean 33. minutuan. Partidaren azkeneko zatian, ordea, tolosarrek aurkariekin distantzia moztea lortu zuten, Maiderreri berrirori gola sartu baitzuten, markagailuak 3-2 jarri.

Daniel Garcia entrenatzailearen ustez neskek talde-jokoa asko hobetu beharra daukate, «eta gaizki hasi den denboraldian honetan haien emaitzak hobetu nahi badituzte jarrera ere aldatu beharko dute».

Hegoalde K.E. taldeak jokatuko zuten lehenengo bostak hauek izan ziren: Tamara, Miriam, Edurne, Isa eta Maider. Sarahk, Iguntzek, Aldek, Amaiak, Ana Bercianok, Emik eta Itziarrek ere partidari jokatuko zuten.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Euskadiko Gazteria Kontseiluak antolatuta, ebebizitzari buruzko hitzaldia izango da Kultur Etxean, 19:30etik aurrera.

Tolosa. Zeligueta-Urroz mendi irteera antolatu du Alpino Uzturrek iganderako. Itzaga mendia igoko dute. 6 orduko ibilaldia da. Izen-ematea, elkartean bertan (Gudari 5. 943 652789).

Tolosa. Merkataritza Federakuntzak antolatuta, ostiralera arte, eskaparatismo ikastaroa izango da Kultur Etxean. Eskolak, 14:15ean izango dira.

Tolosa. Abesbatza Lehiaketako sarrera solteak salgai daude TEEK (CIT) Emeterio Arrese kalean 2 duen bulegoan.

ERAKUSKETAK

Alegia. Maria Rosario Ormazabalaren koadroen erakusketa azaroaren 5era arte ikusgai, Jubilatuen tabernan.

Ibarra. Iñaki Vergara argazkilariren *Artzainaren Bizitza* txuri beltzeko 35 argazkien erakusketa ikusgai Kultur Etxean, hilaren 16ra arte.

Tolosa. *Esperientziak*, XX. mendeko memoriaren berreskuratze proiektuko elkarrizketen bideoak ikusgai, Aranburu jauregian eta Gipuzkoako Artxibo orokorrean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.
Tolosa. Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko* ahotza magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZAren errepassoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa, Añoetako Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleen saioa.
21:00-22:00. *Zaharrak berri*.
22:00-23:00. *Street*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Zein duzu gustukoen?


TOLOSA ▶ Urriaren 31ra bitarte herritarrek Koldobika Jauregiren 15 eskulturen artean gogokoena aukeratzeko txartelak eskuragarri jarri ditu Tolosako Udalak



Zabalarreta parkean kokatu dituzte *Kantu isila* erakusketaren eskultura batzuk. LEIRE MONTES

ERREDAKZIOA

Hiru hilabete igaro dira dagoeneko Koldobika Jauregik *Kantu isila* eskulturen kale erakusketa herriko kaleetan ezarri zuenetik. Orduetik hamaika iritzi piztu dituzte eta guztien ahotan izan dira herritik barreiaturik daudden 15 eskultura hauek: «Eder-rrak dira; bereziak benetan; enbarazu baino ez dute egiten;



Koldobika Jauregik berak inauguratu zuen erakusketa. NOELIA LATABURU

ez datoz paisiarekin bat...» Bada, guztien artean bakarra geratuko da Tolosan, eskultura iraunkorra izateko. Eta, iritziak iritzi, tolosarron esku dago orain eskultura hori zein izango den erabakitzea eta non kokatuko duten zehaztea.

Horretarako, Udalak parte-hartzaileentzako txartel batzuk kaleratu berri ditu, non eskultura guztien artean gogokoena zein den zehaztu beharko duten, datu pertsonalekin batera. Interesatuak txartela urriaren 31 baino lehen utzi beharko dute Kultur Etxean atonduko duten kutxa batean. Eskultura irabazlea azaroaren 4ean ezagutaraziko dute eta eskultura erakusketa, aldiz, azaroaren 5era arte izango da ikusgai. Txartelak herriko dendetan, tabernetan, Kultur Etxean, liburutegian, ikastetxeetan eta Tolosaldea Tour-en daude eskuragarri.

Parte-hartzaile guztien artean sari ezberdinak banatuko dituzte: Koldobika Jauregiren serigrafia bat, Tartalok diseinatutako bost kamiseta eta *Tolosako Musika* 10 CD zozketatuko dituzte. Pertsona bakoitzak behin bakarrik bozkatu ahal izango du.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Joxepa Galartza (Amezketeta). Gaur 99 urte. Segi horrela bixkor-bixkor.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...